



GIPUZKOA



ETA EUROPAR BATASUNA

## 114. INFORMAZIO BULETINA

> 2016ko Iraila



Fondo Europeo de  
Desarrollo Regional (FEDER)  
*"Una manera de hacer Europa"*

Eskualde Garapenarako  
Europar Funtza (EGEF)  
*"Europa egiteko modu bat"*

GIPUZKOA



## NABARMENDU BEHARREKOA

### > Ingurumen Departamentuak LIFE LEMA Europako proiektua, itsasoko zabor flotatzaileak jasotzeko eta kudeatzeko zerbitzu adimentsua, zuzenduko du

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ingurumen Departamentuak zuzendu eta AZTI koordinazio teknikoaz arduratuko den LIFE LEMA Europako proiektuaren helburua Gipuzkoako eta Lapurdiko kostaldeetan itsasoko zabor flotatzaileak jasotzeko eta kudeatzeko zerbitzu adimentsua ezartzea da. Hori guztia bat dator Europako Itsasoko Estrategiaren direktibekin eta horren helburua tokiko agintaritzak kostaldea garbi mantentzeko ikuspegi iraunkorra hartzera bideratzea eta ingurumenean eta gizartearentzat sortutako inpaktu negatiboak murriztea da.

Proiektuan, gainera, honako hauek hartuko dute parte: Lyonnaise des Eaux, Biarritzeko Udala, Syndicat mixte Kosta Garbia eta Surf rider Foundation Europe. Bizkaiko golkoko uretan, Gipuzkoan eta Lapurdin, datorren hiru urteotan itsasoko zaborren 100 tona inguru jasotzea aurrez ikusi dute.

LIFE LEMAk tokiko agintaritzari irtenbideak eskainiko dizkie Europako Itsasoko Estrategiaren baitako 2008/56/CE esparru-direktibari erantzuteko asmoz. Horren helburua 2020. urtea amaitu aurretik itsasoko ur guztien ingurumen-egoera ona lortzea da. Gomendioak proiektuan aurrez ikusitako lantaldeek egingo dituzte eta itsasoko zaborrei buruzko Europako sarea ezarriko da. Horrek bultzatuko du Europako adituen eta antzeko ekimenak bideratu dituztenen arteko solaskidetza.

Ekimenak Europar Batasunetik iritsitako 1,2 milioi euroko inbertsioa jasotzen du.

*Informazio gehiago:*

[http://w390w.gipuzkoa.net/WAS/CORP/DPDOficinaPrensaDigitalWEB/nota/eu/2902/europako-life-lema-proiektuak-aurreikusten-du-100-tona-itsasoko-zabor-biltzea-gipuzkoan-eta-lapurdin&anti\\_cache=1476431516727](http://w390w.gipuzkoa.net/WAS/CORP/DPDOficinaPrensaDigitalWEB/nota/eu/2902/europako-life-lema-proiektuak-aurreikusten-du-100-tona-itsasoko-zabor-biltzea-gipuzkoan-eta-lapurdin&anti_cache=1476431516727)



### > Mugikortasuna eta Lurralde Antolaketa Departamentuak antolatutako “lurraldeen erresilientzia” ikastaroak Europako hiri-politika landu zuen

Irailaren 12an eta 13an egin zuten “*Lurraldeen erresilientzia: Pasaia*” ikastaroa. Ikastaroa Mugikortasuna eta Lurralde Antolaketa Departamentuak antolatu zuen eta haren helburua gaur egun Pasaiako portuak bizi duenaren moduko egoeretan aplikagarriak diren hiri-birsorkuntzako kasu ugariak ezagutzea eta aztertzea izan da. Hori guztia Europako hiri-politikaren esparruan egin da.

Ikastaroan Estatu mailako eta nazioarteko adituak izan ziren eta Pasaiak gaur egun bizi duenaren moduko egoeratan, lurraldeek krisi-egoerak nola leheneratu dituzten eta birsorkuntzako arazoei irtenbideak nola aurkitu dizkieten azaldu eta aztertu zuten.

Marisol Garmendiak, Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako foru-diputatuak, eta Miguel Angel Crespok, Lurralde Antolaketako zuzendariak, ikastaroa aurkeztu ondoren, hizlariak beren lanen ondorio nagusiak azaldu zituzten. Ikastaroan, besteak beste, honako hauek hartu zuten parte: Enrique Ponte arkitektoak; Marta Marínek, Bruselan Euskadiren ordezkaria denak; Inés Sánchez Madariagak, generoan eta hirigintzan espezialistak (Madrilgo Unibertsitate Politeknikoa); eta Quim Bruguék, herritarren parte-hartzean adituak (Bartzelonako Unibertsitate Autonomoa).

Bestalde, Daan Schalck-ek, Ganteko portuko zuzendariak, ere hartu zuen parte. Ganteko portuko hiria-  
portua erlazio-eredua azaldu zuen bertan; udal-izaera duen eredua da eta portua da garapen ekonomiko eta sozialaren eragilea eta enpresa-gunea.

*Informazio gehiago:*

<https://www.uik.eus/eu/la-resiliencia-de-los-territorios-pasaia>



### > LIFE OREKA MENDIAN mugaz bestaldeko proiektuak oinarriak ezarriko ditu mendiko larreak haien kontserbazioa bermatzeko moduan kudeatzea lortzeko

LIFE OREKA MENDIAN proiektuaren helburua mendiko larreak (Europa mailan oso mehatxatutako guneak dira) haien kontserbazioa eta bertan bizi diren habitaten eta espezieen mantentzea bermatzeko moduan kudeatu ahal izateko oinarriak finkatzea da. Europar Batasunak finantzatu du beste batzuekin batera, eta Eusko Jaurlaritzak zuzendu du, HAZI Fundazioaren bidez.

Gipuzkoako Foru Aldundiak, Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka Departamentuaren bidez, beste bi foru-aldundiekin eta Ihobe eta Neiker-Tecnalia sozietate publikoekin batera, proiektuan hartu du parte. LIFE OREKA MENDIAN proiektuan Euromontana elkarteak eta Euskal Herriko Laborantza Ganbara eta Conservatoire d'Espaces Naturels d'Aquitaine Iparraldeko erakundeek ere hartu dute parte.

Mendiko larreek osatzen dute Europan arrisku handiengan dagoen giroetako bat; izan ere, artzaintzako eremu gisa haren aprobetxamendua bertan behera geratu da. Ez erabiltzearen ondorioz, tradizioz Euskadiko abeltzaintza estentsiboak erabili izan dituen habitat naturalak kontserbazio-egoera txarrean daude eremu batzuetan. Hori dela eta, LIFE OREKA MENDIAN proiektuaren helburua eremu horiek kontserbatzeko estrategia garatzea da. Abiapuntutzat larreen erabilera tradizionala mantentzea hartuko da eta gune horien bazka-eskaintzaren eta abeltzainek egindako erabilera-eskariaren arteko oreka bilatzen saiatuko dira. Horretarako, mendiko larreen kudeaketa integratuan eta iraunkorrean inplikatu dituzte jabeak, erabiltzaileak, gune naturalen kudeatzaileak, adituak eta tokiko eragileak.

LIFE proiektu horren bidez, Natura 2000 Sarearen koherentzia sendotu ahal izateko mendiko larreen kudeaketarako esparru komuna ezarri nahi da. Pirinioetako bi aldeetako eta Euromontanako bazkideak txertatzea aukera bikaina da sinergiak bilatzeko, esperientziak elkartzeko eta Europa mailako eragina duen arazoari aurre egiteko kudeaketa-irizpideak ezartzeko.

Proiektuaren ekintzak Euskadiko Natura 2000ko 15 tokitan eta Iparraldeko Kontserbazio Bereziko 8 Eremutan garatuko dira.

*Informazio gehiago:*

[http://www.gipuzkoaberrri.eus/WAS/CORP/DPDOficinaPrensaDigitalWEB/nota.do?id=2909&detalle=1&anti\\_ache=1476431559614](http://www.gipuzkoaberrri.eus/WAS/CORP/DPDOficinaPrensaDigitalWEB/nota.do?id=2909&detalle=1&anti_ache=1476431559614)



## KOHESIO-POLITIKA

### > 83 udalerrri finantzatuko dituzte DUSI Estrategiak bideratzeko

83 udalerrri hautatu dituzte Hiri Garapen Iraunkorraren eta Integratuaren Estrategiak (DUSI) bideratzeko. Estrategia horiek 2014-2020ko Hazkunde Iraunkorreko EGEF Programa Operatiboa (POCS) izenekoaren bidez 730 milioi euroekin finantzatuko dituzte beste batzuekin batera eta, zenbateko horretatik, Euskadiri 9,3 milioiko zenbatekoa bideratuko diote.

2015eko azaroan argitaratu zuten DUSI Estrategiak hautatzeko lehen deialdia. Norgehiagoka-prozesuaren bidez egin zuten. Ondorioz, 269 proiektu aurkeztu zituzten eta haietako 241 onartu zituzten gero baloratzeko.

Baloratzeko onartutako proiektuen artean zegoen Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Pasaiaiko, Oiartzungo eta Lezoko udalek, Oarsoaldea eskualdeko agentziarekin batera, aurkeztutako proposamena. Proposamenak Pasaiaiko Badiaren birsorkuntza bultzatzeko jarduerak jasotzen zituen (18 milioi euroko guztizko zenbatekoa dute).

Pasaiaiko Badiarako egindako proposamenarekin batera, beste hiru hautagaitza aurkeztu dituzte Gipuzkoan. Donostiak, Eibarrek (Debabarrena) eta Irunek.

Azkenean, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Oarsoaldeko udalek Pasaiaiko Badiarako aurkeztutako hautagaitza ez da hautatua izan eta Bilboren hautagaitza aukeratu dute Euskadi osorako: Zorrotzaurre eremurako, hain zuzen ere.

Deialdia ebatzi ondoren, Komunitateko Funtsen Zuzendaritza Nagusiak iragarri du aukeratu ez dituzten udalekin bilerak egingo dituela estrategiak zergatik ez dituzten hautatu azaldu ahal izateko. Bilera horietan, modu pertsonalizatuan, egin daitezkeen hobekuntzak azalduko dituzte.

*Informazio gehiago:*

<https://www.boe.es/boe/dias/2016/10/03/pdfs/BOE-A-2016-9052.pdf>



### > **Gipuzkoako gizarteratze-zerbitzuen eskubideen eta bizi-kalitatearen eredua identifikatu dute Europako jardunbide egoki gisa**

Europar Batasuneko Holandako presidentetzak "Gizarteratzeko zerbitzu integratuetako jardunbide egokiak Europan" izeneko txostenean kide diren herrialde ugarietan gizarte-bazterkeriaren eta txirotasunaren aurka borroka egiteko ikuspegi integratuen jardunbide egokiak bildu ditu. Txostenean hautatutako proiektuen artean, 8 proiektu Estatuan garatu dituzte; haien artean, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politika Departamentuak garatutako gizarteratze-zerbitzuetako eskubideen eta bizi-kalitatearen eredua dago.

Egindako aukeraketa horretan era askotako esparruetako esperientzia berritzaileak daude sartuta: haurren txirotasuna eta arreta goiztiarra, etxebizitza-bazterketarekin eta iraupen luzeko langabeziarekin lotutako irtenbideak, etorkinei babesa ematekoak, desgaitasuna duten pertsonentzako zerbitzu integratuak, gazteriaren aktibazio profesionala, gizarteratze-zerbitzuetako arretaren kalitatea eta abar.

*Informazio gehiago:*

[http://www.effectiefarmoedebeleid.nl/files/3614/6668/9668/WEB\\_93954\\_EUNL\\_Brochure\\_A4.pdf](http://www.effectiefarmoedebeleid.nl/files/3614/6668/9668/WEB_93954_EUNL_Brochure_A4.pdf)

<http://gizartepolitika.eus>



### > Egitura Funtsak Soiltzeko Maila Goreneko Europako Taldeak enpresei funtsetarako sarbidea errazteko gomendio berriak aurkeztu ditu

Europako Batzordeak 2015. urtean jarri zuen abian Maila Goreneko Taldea Egitura eta Inbertsio Funtsen soiltzea lantzeko. Orain arte, Taldeak lau esparruren inguruko gomendioak prestatu ditu: onlineko prozedurak; gastuak ordaintzeko modu errazagoak; ETE-entzako finantzaketarako sarbide errazagoa; eta finantza-tresnak gehiago erabiltzeko gomendioak.

Taldeak egindako proposamen nagusietako batzuek gastuak ordaintzeko modu errazagoak, "behin bakarrik" printzipioaren sustapena (onuradunek aurkeztutako dokumentuak formatu digitalean gorde eta ez lirateke proiektua gauzatzeko etapa bakoitzean errepikatu beharko) edo EIE funtsak oinarritat dituzten finantza-tresnetan zordundutako maileguak jasotzen dituzten enpresetarako baldintzen harmonizazioa besteak beste.

2016. urtea amaitzeko geratzen den hilabeteotan, Maila Goreneko Taldea "gehiegizko erregulazioaren" gaia lantzen oinarrituko da; hau da, Estatu mailako edo tokiko agintariak onuradunei ezarritako administrazioko xedapen osagarrietan.

Taldeak egindako gomendioetan oinarrituta, Batzordeak Inbertsio Estrategikoetarako Europako Funtsarekin (FEIE) konbinazioak soiltzeko beharrezko guztia egitea proposatu du. Horren arabera, Funts bakoitzeko arau espezifikoak egin beharrean, eskatzaileak prozeduren multzo bakarra egin beharko du.

*Informazio gehiago:*

[http://europa.eu/rapid/press-release\\_IP-16-3168\\_es.htm](http://europa.eu/rapid/press-release_IP-16-3168_es.htm)



### > **Aldundiak antolatutako kongresuak ezagutaraziko ditu berdintasun eta kontziliazio arloko Europako jardunbide gokiak**

Gipuzkoa etorkizuna sortzeko eta perfektionatzeko gai den lurralde bihurtzea xede duen "Etorkizuna Eraikiz" lankidetzeta-programaren baitan, Gipuzkoako Foru Aldundiak urriaren 27an eta 28an Donostian egingo den "Berdintasuna eta Kontziliazioa" kongresua antolatu du.

Kongresuan, Gipuzkoako Foru Aldundiko, Emakundeko eta Euskal Herriko Unibertsitateko, eta Madrilgo eta Bartzelonako unibertsitateetako ordezkariekin batera, Genero Berdintasunerako Europako Institutuko (EIGE) Helena Morais Maceirak hartuko du parte. Era berean, bertan izango da Tryggvi Hallgrímsson, Islandiako Genero Berdintasuneko Zentroko aholkulari berezia.

Etorkizuna Eraikiz Gipuzkoako Foru Aldundiak zuzendu duen programa da eta bi helburu ditu: lehenengo eta behin, Gipuzkoa modernizatzea ahalbidetu eta lurraldearen etorkizun ekonomikoa, soziala eta politikoa bermatzea ahalbidetuko duten ekonomia, gizarte eta kultura mailako proiektu berriak eta asmo handikoak abian jartzea; eta bigarrenik, gizartearekin eta Gipuzkoako erakunde eta elkarte ugariarekin elkarlanean gure lurraldean hurrengo 10 urteotan landu beharko ditugun proiektu estrategikoak diseinatzea.

*Informazio gehiago:*

<http://www.gipuzkoa.eus/eu/etorkizuna-eraikiz/kongresua>

<http://www.gipuzkoa.eus/eu/etorkizuna-eraikiz>





### > **Gipuzkoako Foru Aldundiak Ondarearen Europako Jardunaldietan hartuko du parte**

Gipuzkoako Foru Aldundiak, Kultura Departamentuaren bidez, Ondarearen Europako Jardunaldietan parte hartuko duela iragarri du.

Europako Kontseiluak Europar Batasunarekin elkarlanean bultzatu duen Europako Kultur Ondareari buruzko sentsibilizazio-programa da. Ate irekien jardunaldi gisa eratu da eta Europako Hitzarmen Kultureleko 50 estatu sinatzaileek hartuko dute parte.

Sortu zenetik, jardunaldien hasierako inspirazio-iturri izan ziren printzipioak mantendu egin dira: Europako herritarrak kontzientziaztea beren kultur aberastasunaren inguruan eta, ondarea zaindu ahal izateko, kultur aniztasunaren aitortpen eta ulermen handiagoa lortzea.

Gipuzkoaren kasuan, Ondarearen Europako Jardunaldiak irailean eta urrian egingo dira. Horretarako, Kultura Departamentuak katalogo batean jaso ditu Gipuzkoako udal, elkarte, kultur eragile eta enpresa eta erakunde ugari antolatutako proposamenak.

*Informazio gehiago:*

[www.europeanheritagedays.com](http://www.europeanheritagedays.com)

[www.gipuzkoakultura.eus](http://www.gipuzkoakultura.eus)

<http://www.gipuzkoaberri.eus/WAS/CORP/DPDOficinaPrensaDigitalWEB/descarga.do?psV6jz2Utdc/g/5ZLOTI10/o0ctvZZ2F2obf8gJTGhooCVxW4wZsPw==>



### > Euskadik Europako eskualde mailako politika sendoa izateko beharra defendatu du eskualdeen goi-bileran

Eusko Jaurlaritzaren Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak Bruselan egindako "Eskualdeen Goi-bilera" izenekoan hartu du parte irailaren 28an. Eskualde mailako ekimen horren helburua Europar Batasuneko eskualde-politika 2020. urteaz harago luzatzeko beharra adieraztea izan da. Mezua "Eskualde-politika sendoa eta berritua eskualde guztietarako 2020. urtearen ondoren" izeneko adierazpenean zehaztu dute eta Europako 300 eskualdek baino gehiagok babestu dute.

Eusko Jaurlaritzako ordezkariak, Marian Elorzak, adierazi duenez, Eusko Jaurlaritzak berretsi egin du gaur egungo zein 2020. urtearen ondorengo Europar Batasuneko eskualde-politika sendo eta eragingarriari emandako laguntza. Europak aurrean dituen erronka handiez jabetuta, horiei aurre egiteko eta ekonomia, gizarte eta lurralde mailako kohesio-helburua betetzeko ezinbesteko tresna da kohesio-politika. Erronka horiei erantzuna emateko beharrezkoa den politika sendoaren, eragingarriaren eta malguaren aldeko apustua egin dugu.

Informazio gehiago:

[http://noel.gv.at/bilder/d101/Final\\_Document\\_Political\\_Declaration\\_with\\_preamble\\_EN.pdf?40535](http://noel.gv.at/bilder/d101/Final_Document_Political_Declaration_with_preamble_EN.pdf?40535)

[http://noel.gv.at/Politik-Verwaltung/Internationales-Europa/Aktuelles/28\\_September\\_Brussels.html](http://noel.gv.at/Politik-Verwaltung/Internationales-Europa/Aktuelles/28_September_Brussels.html)



## EUROPA 2020 ESTRATEGIA

### > Europarren % 67k ingurumen arloko gaietan EBren esku-hartze handiagoa nahi dute

Europako Parlamentuak egindako azken Eurobarometroaren arabera, europarren bi herenek (% 67) nahi dute Europar Batasunak ingurumena babestearekiko konpromiso sendoagoa izatea; aldiz, % 21ek uste du ez dela inolako aldaketarik behar. Espainian, herritarren % 78k uste du komunitate mailako ingurumen arloko legeri handiagoa behar dela; aldiz, % 15ek uste du ez dela halakorik behar.

Bestalde, Eurobarometroak agerian utzi duenez, europarren erdiak baino gehiagok (% 52) uste du egungo komunitate-ekintza ez dela nahikoa.

*Informazio gehiago:*

<http://www.europarl.europa.eu/news/es/news-room/20160707STO36280/medio-ambiente-el-67-de-los-europeos-quiere-m%C3%A1s-intervenci%C3%B3n-de-la-ue>

### > Pariseko klimaren akordioa azaroan sartuko da indarrean

Beroketaren aurkako Pariseko akordioa (klima-aldaketaren inguruko mundu mailako lehen itun loteslea da) azaroan sartuko da indarrean baldintzak aurrez ikusitakoa baino lehen bete direlako. Europako Parlamentuak oniritzia eman dio Europar Batasunak egindako berrespenari.

Parlamentuaren oniritzia lortutakoan, Kontseiluak modu formalean presazko idatzizko prozedura bidez har dezake erabakia; hala, EBk, berrespen-prozesua burutu duten zazpi estatu kideekin batera, berrespen-tresnak NBEko egoitzan, New Yorken, aurkeztuko dituzte urriaren 7an, ostiralean.

Europar Batasuna, AEB, Txina, India eta mundu mailako beste eragile batzuk (igorpen gehien erantzuleak) azaroan bilduko dira Marrakexen akordioa garatzen aurrera jarraitzeko.

*Informazio gehiago:*

[http://ec.europa.eu/clima/policies/international/negotiations/paris/index\\_es.htm](http://ec.europa.eu/clima/policies/international/negotiations/paris/index_es.htm)



## DOKUMENTU INTERESGARRIAK

### > **Europar Batasunerako Hiri Agenda (Panorama aldizkaria, 58. alea, DG Regio)**

Panorama aldizkariaren udazkeneko edizioaren gai nagusia Europar Batasuneko Hiri Agenda izan da. EBko Hiri Agenda kide diren hogeita zortzi estatuek onartu zuten Amsterdamen eta benetako mugari bihurtu da Europarako. Maila anitzeko gobernantzari bultzada eman dio eta hiri adimentsuagoetarako, berdeagoetarako eta integratzaileagoetarako aurrerapena ekarri du.

Batzordeak ekonomia zirkularra bultzatzeko abian jarri dituen neurrien pakete berria ere berrikusiko du aldizkariak. Horren helburua da hondakinak gutxitzen laguntzea eta iraunkortasuna bultzatzea. Bestalde, espezializazio adimentsuaren estrategietan (RIS3) lortutako aurrerapenak ere jasotzen ditu aldizkariak.

Eskualdeei buruko erreportaje berezian, oraingoan Italiako Puglia eskualdea aurkeztu dute. Gainera, eskualde hartako presidenteari egindako elkarrizketa eta duela gutxi lortutako proiektu arrakastatsuen aukeraketa bat ere jaso dituzte.

*Informazio gehiago:*

[http://ec.europa.eu/regional\\_policy/sources/docgener/panorama/pdf/mag58/mag58\\_es.pdf](http://ec.europa.eu/regional_policy/sources/docgener/panorama/pdf/mag58/mag58_es.pdf)

### > **Eskualde eta biztanle mugakideen zerbitzura dauden mugaz gaindiko proiektuen urtekaria (MOT - Mission Opérationnelle Transfrontalière)**

MOTen urteroko argitalpenak Frantziako eskualde mugakideetan abian jarritako benetako jardueren eta ekimenen bilduma jasotzen du. Ekimen eta jarduera horiek guztiek mugaz gaindiko eskualde horietako herritarren bizi-kalitatea hobetzen laguntzen dute.

Urtekariak 5 jarduera esparru bereizi ditu: enplegua-ekonomia-berrikuntza, zerbitzu publikoak, hirigintza-garraioa, garapen iraunkorra eta hezkuntza-kultura-turismoa.

*Informazio gehiago:*

[http://www.espaces-transfrontaliers.org/fileadmin/user\\_upload/documents/Dossier\\_de\\_Fiches\\_Projets\\_Transfrontaliers\\_2016.pdf](http://www.espaces-transfrontaliers.org/fileadmin/user_upload/documents/Dossier_de_Fiches_Projets_Transfrontaliers_2016.pdf)



### > **Urban Europe: Europako hiriei eta hiri eremuei buruzko estatistikak (Europako Batzordea)**

Argitalpenak bi zati ditu: lehenengoak hiriarekin eta hiri-garapenekin lotutako gaiak jorratzen ditu; bigarrenak, aldiz, hirietan bizi diren pertsonak eta haien bizimodua ditu oinarritzat.

Argitalpenak 12 kapitulu ditu eta hauek dira landutako gaiak: hiriko paradoxa, hiri-garapeneko ereduak, hiriburuen nagusitasuna, hiri adimentsuak, hiri berdeak, turismoa eta kultura, bizitza eta lana, txirotasuna eta gizarte-bazterkeria, eta hirietako asebetetzea eta bizi-kalitatea.

Kapitulu bakoitzak mapekin, taulekin eta irudiekin azaldutako informazio estatistikoa jasotzen du. Gainera, Europar Batasunean hartutako neurri batzuen deskribapena eta ondorio nagusiak ere azaltzen dira.

Informazio gehiago:

<http://ec.europa.eu/eurostat/documents/3217494/7596823/KS-01-16-691-EN-N.pdf/0abf140c-ccc7-4a7f-b236-682effcde10f>



### > Eskualdeko 2016ko urtekaria (Eurostat)

Eurostatek Europako eskualdeen urtekari estatistikoaren edizio berria aurkeztu du. Edizio honek 12 gai jorratzen ditu: eskualde-politikak eta 2020, biztanleria, osasuna, hezkuntza, lan-merkatua, ekonomia, enpresetako estatistika estrukturalak, ikerketa eta berrikuntza, informazioaren gizartea, turismoa, garraioa eta nekazaritza. Gainera, genero-berdintasunari, bizi-kalitateari eta Europako hiriei buruzko hiru kapitulu espezifiko ere jaso ditu.

Urtekaria osatzeko, Atlas Estatistikoa gehitu dute. Mapen bistaratzailer interaktiboa da eta urtekariko mapa estatistikoak jasotzen ditu. Mapak banaka deskargatzeko aukera ere eskaintzen du.

Informazio gehiago:

<http://ec.europa.eu/eurostat/statistical-atlas/gis/viewer/>

### > Legeak hobeto egitea (Europako Batzordea)

Batzordeak web-atari berria sortu du eta horren helburua herritarrek Europar Batasuneko araudien eta legeen etorkizuneko proiektuen inguruan dituzten iritzia eta iruzkinak partekatzeko aukera ematea da.

Batzordearen helburua da atari hori politikak prestatzeari eta legegintzako prozesuei buruko iritzia jasotzeko onlineko tresna nagusi bihurtzea.

Informazio gehiago:

[https://ec.europa.eu/info/law/better-regulation/share-your-views\\_es](https://ec.europa.eu/info/law/better-regulation/share-your-views_es)



## EUROPAKO DEIALDIAK

Jarraian, Gipuzkoatik interesgarriak izan daitezkeen eta azken hilabeteen argitaratutako deialdi nagusiei egindako erreferentziak biltzen dira. Deialdiak aukeratzeko orduan, irizpide gisa hartu dira horien gaia, hautagaitzak aurkezteko epea, egokitasuna eta hautagaiak izan daitezkeen eragileen aukeragarritasuna.

- **COSME 2016 - Migratzaileen ekintzailetza babesteko eskemak (COS-MigrantsENT-2016-4-02) (+ info)**
- **HORIZON 2020. Energetikoki eragingarriak diren eraikinak (H2020-EBB-05-IA, H2020-EBB-06-RIA, H2020-EBB-07-IA, H2020-EBB-08-CSA) (+ info)**
- **HORIZON 2020. Berrikuntza. Kargono-igorpen gutxiko energia lehiakorra (H2020-LCE-04-2017-IA) (+ info)**
- **HORIZON 2020. Ikerketa eta berrikuntza. Karbono-igorpen gutxiko energia lehiakorra (LCE-01-2016-2017-RIA) (+ info)**
- **HORIZON 2020. Ikerketa eta berrikuntza. Karbono-igorpen gutxiko energia lehiakorra (H2020-LCE-29-2017-RIA, H2020-LCE-30-2017-RIA) (+ info)**
- **HORIZON 2020. Ikerketa eta berrikuntza. Karbono-igorpen gutxiko energia lehiakorra (+ info)**
- **HORIZON 2020. Ikerketa eta berrikuntza. Karbono-igorpen gutxiko energia lehiakorra (H2020-LCE-27-2017-RIA) (+ info)**
- **HORIZON 2020. Ikerketa eta berrikuntza. Karbono-igorpen gutxiko energia lehiakorra (H2020-LCE-08-2016-2017-RIA) (+ info)**